



KIROL MEREZIMENDUARI SARIAK EMATEKO OINARRIAK

XEDEA

Oinarri hauen xedea da, kirolaren arloan nabarmendu diren Lasarte-Oriako pertsoneri kirol errekonozimenduaren sarien banaketa arautzea.

- 2017ko emakumezko kirolariari saria.
- 2017ko gizonezko kirolariari saria.
- Kirol ibilbideari 2017ko Lasarte-Oria saria.

HAUTAGAIK

Ondoko gaietan nabarmendu diren Lasarte-Oriako pertsona helduak izan daitezke hautagai:

- Lasarte-Oriako kirolaren alde egindako lanagatik.
- Bere kirol ibilbide pertsonalagatik.

HAUTAGAIEN PROPOSAMENA

Lasarte-Oriako kirol elkarteek eta edozein herritarrak proposatu ditzakete hautagaiak.

Hautagaiak proposatzeko baldintzak:

- Elkarte edota herritar bakoitzak, gehienez ere, hautagai bat aurkeztu ahal izango du sari bakoitzeko.
- Hautagaiak aurkezteko, horretarako espresuki prestatutako fitxa bete beharko da. Fitxa hau Lasarte-Oriako Udalaren webgunean zintzilikatuko da eta elkarteei emailez bidaliko zaie.
- Hautagaien proposamenak emailez kirolak@lasarte-oria.eus helbide elektronikora bidali beharko dira, edota kiroldegian jarriko den kaxan sartu beharko dira.

Hautagaiak aurkezteko epea: Urriaren 20ra arte.

EPAIMAHAIA

Epaimahaia, Udalaren Kirol Batzordeko kideekin eta Lasarte-Oriako kirol elkarteak, aipatutako batzordean duten ordezkariarekin dago osatua.

HAUTAKETA EGITEKO PROZEDURA.

- Kirol zerbitzuan proposamenak jaso ostean, hautagaien zerrenda eta botoa emateko betebeharreko fitxa emailez bidaliko zaizkie elkarteei eta baita kirolen Batzordeko kideei ere.

- Hautagaien artean boto banaketa egingo dute elkarteek eta Batzordekideek, bakoitzak bere aldetik 3, 2 eta boto 1 emanaz sari ezberdinetan (emakumea, gizonezkoa, ibilbidea) proposatutako hautagaien artean. Kirol elkarteek botoak emailez bideratu beharko dituzte Kirol Zerbitzura. Batzordeko ordezkariak aldiz, azaroko ohiko bileran aurkeztuko dituzte beraien bozkak.



- Batzordekideen botoen balioa alderdi bakoitzak udalbatzan dituen ordezkarien zenbatekoaren arabera konputatuko da.
- Bozketan berdinketa emango balitz, Batzordeko Lehendakariak kalitatezko bozka erabili ahal izango du.

Botoa bidaltzeko epea: Azaroaren 17a arteko epea.

- Kirol Batzordearen abenduko bilera arruntean batuko dira kirol elkarteek eta Batzordekideek igorritako bozkek. Bozketaren emaitza, lehenengoz, saritutako pertsoneri jakinaraziko zaie, eta ondoren publiko egingo da jende orok ezagutu dezan.

SARIA

Saritutako pertsonak jasoko duten saria, bereziki ekitaldi honetarako diseinatutako diploma bat izango da, eta Lasarte-Oriako Udalak abenduan, espresuki horretarako antolatutako ekitaldian banatuko da.